

I. ERANSKINA

PERTSONA FISIKOAK EDO JURIDIKOAK GAITZEKO ESKABIDEA, OSASUN ZERBITZUAK EMAN DITZATEN NAFARROAKO HAURREN AHO-HORTZETAKO OSASUN LAGUNTZAREN PROGRAMAREN ESPARRUAN (PADI)

Izen-abizenak:	IFZ:
Helbidea: Herria:	Posta kodea:
Kalea:	Zk. eta solairua:

Bere izenean edo honako hau ordezkatzuz :

Pertsona juridikoa:	IFZ:
Helbidea: Herria:	Posta kodea:
Kalea:	Zk. eta solairua:

ESKATZEN DU:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak (O-NOZ) gaikuntza ematea osasun zerbitzuak emateko Nafarroako PADIren esparruan. Eta, horretarako,

ADIERAZTEN DU:

1. Laguntza emateko erabiliko diren hortz klinikak badute Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak osasun zentro gisa funtzionatzeko emandako baimena. Hauxe da klinikaren/klinikaren helbidea:

Herria	P.K.	Kalea	Zk. eta solairua	Telefonoa

2. Indarreko xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eguneratuta ditu.
3. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuta ditu.
4. Laneko segurtasuna eta osasuna zaindu eta laneko arriskuei aurrea hartzeko betebeharrak, indarra duten xedapenetan ezarritakoak, eguneratuta ditu.
5. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ematen dituen jarraibide eta aholkuak beteko dituela hitzematzen du.
6. Erakunde horrekin lan egiten duela hitzematzen du. Horrela, beharrezkoa izanen balitz, Programaren garapena eta ezarpena kontrolatzeko behar diren informazioa eta jarduerak erraztuko ditu.
7. Datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia betetzen du, eta zerbitzua ematean eskuratzen den informazioaren isilpekotasuna errespetatzen du.

8. PADIren zerbitzuak emanen dituzten profesionalen datuak honako hauek dira:

Abizenak	Izena	Elkargoko zk.	Euskaldun a		NANa
			Bai	Ez	

9. Profesional bakoitzak lan egiten duen kontsulta hau da:

Abizenak	Izena	Kontsulta

10. Profesional horiek odontologo titulua edo estomatologiaren arloko mediku titulua dute, legeria indardunaren arabera jarduera profesionalerako bidea ematen diena.

11. Profesional horiek lanbide elkargoei buruzko indarreko legedia betetzen dute.

12. Profesional horiek erantzukizun zibil profesionaleko poliza bat dute indarrean, bere gain hartzen dituen Programako pazienteei egiten zaizkien kalteak; urte baterako gutxienez ere 300.000 euro izanen ditu.

13. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ematen dituen jarraibide eta aholkuak beteko dituela hitzematzen du.

14. Aurkeztutako datuen eta dokumentazioaren egiazkotasuna bermatzen du, eta, eskatuz gero, jatorrizko edozein dokumentu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eskura jarriko duela hitzematzen du.

15. Aurkeztutako dokumentazioa osatu edo zuzentzeko edo ohar osagarriak eskatzeko jakinarazpenen ondorioetarako, hauxe da helbide elektronikoa:

Helbide elektronikoa:

@

_____ (e)n, 20 ____ (e)ko _____ aren _____ (e)(a)n.

Sinadura:



I. eranskinarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

1. Eskatzailearen identifikazioa:
 - a) Pertsona fisikoen kasuan: Hortz klinikaren titularraren nortasun agiri nazionalaren (NAN) kopia edo erregelamenduaren arabera hura ordeztzen duen agiriarena.
 - b) Pertsona juridikoen kasuan:
 - Merkataritza Erregistroan elkarte eratzeko edo eraldatzeko inskribaturiko eskrituraren kopia, betekizun hori galdagarria bada aplikagarri zaion merkataritza legediaren arabera. Ez bada hala, jarduteko gaitasuna egiaztatze aldera, eratzeko edo eraldatzeko eskritura edo dokumentua aurkeztu beharko da, edota estatutuak edo sorrera egintzaren agiria; bertan agertuko dira jardura erregulatzen duten arauak eta, kasua bada, dagokion erregistro ofizialean inskribaturik izan beharko du.
 - Merkataritza Erregistroan inskribatutako notario-ahalordearen kopia, betebeharrak hori eska badaiteke erregistroko legediaren arabera; ahalordea pertsona juridikoaren izenean eskaera sinatu duen pertsonaren aldekoa izan beharko da. Horrekin batera, ahalduaren NANaren edo erregelamenduz hura ordeztzen duen dokumentuaren kopia.
2. Odontologoaren edo Estomatologoaren Elkargo Ofizialaren kuotaren ordainagiria, PADIren esparruan laguntza emanen duten odontologo edo estomatologo guztienak.
3. PADIren esparruan laguntza emanen duen odontologo edo estomatologo bakoitzaren arrisku profesionalengatik erantzukizun zibileko aseguruaren ordainagiria; aseguruak urteko 300.000 euroko estaldura izanen du, gutxienez, profesional bakoitzeko. Estaldura hori ez bada aipatzen ordainagirian, polizaren kopia bat ere erantsiko da.